



JOKOA ETA 65 URTETIK GORAKOAK EUSKADIN LABURPEN EXEKUTIBOA 2025



JOKOAREN
EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DEL JUEGO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

JOKOA ETA 65 URTETIK GORAKOAK EUSKADIN LABURPEN EXEKUTIBOA 2025



JOKOAREN
EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DEL JUEGO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026



Ikerketa taldea (EHU): Iraide Fernández Aragón – *Ikerlari Nagusia*
Aidéé Baranda Ortiz

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua
Enpresa Landa Lana: CPS Iritzi eta merkatu ikerketak
Diseinua eta maketazioa: IPAR Fotocomposición S. Coop.
Itzulpena: Saretik Hizkuntza Zerbitzuak



Aurkibidea

1. Aurkezpena	7
2. Ikuspegi orokorra: jokoa eta 65 urtetik gorakoak Euskadin	9
2.1. Jokoaren prebalentzia eta ohiturak	10
2.2. Joko problematikoa	13
3. Kolektiboen errealitatea	15
3.1. Jokoaren prebalentzia eta ohiturak	16
3.2. Joko problematikoa	18
4. Jokoaren sozializazioa adinekoen artean: testuingurua, hasiera eta ibilbideak	19
4.1. Jokoa hastea: adina, testuingurua eta lehen jarduerak	20
4.2. Lehen jokoak: tradizioa eta eskaintza mugatua	21
4.3. Konpainia eta jokoaren alderdi erlazionala	22
5. Ondorioak	24
6. Fitxa teknikoa	27



Grafikoen aurkibidea

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Azken urtean jokoetan ibili izana aitortzen duten 65 urtetik gorako biztanleak (%)	10
2. grafikoa. 65 urtetik gorakoen joko lehentasunak (%)	11
3. grafikoa. 65 urtetik gorakoen joko maiztasuna (%).	12
4. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan jokoari lotutako arazoren bat izan duen 65 urtetik gorako biztanleria, DSM-Ven arabera (%)	14
5. grafikoa. Konpainia, 65 urtetik gorakoak jokoan hasi zirenean (%)	22



1.

Aurkezpena



Aurkezpena

Zorizko jokoa oso hedatuta dagoen aisialdiko jarduera bat dira, eta gizartean normalizatuta daude helduen artean. Presentzia bereziki nabaria dute 65 urtetik gorakoek. Euskadin, belaunaldi zaharrenek lotura estua izan dute historikoki joko modalitate jakin batzuekin; bereziki, loteriaren eta zozketen joko tradizionalekin. Hain zuzen, eguneroko ohituren, ospakizun kolektiboen eta familia zein gizarte loturen barruan daude. Bestalde, jarduera horien ezaugarri bereizgarriak dira arriskuaren pertzepzio txikia eta legitimitate handia gizartearen aldetik. Hori lagungarria izan da minik egiten ez duen edo ondorio negatibo handirik ez duen jardueratzat hartzeko.

Eskura dauden datuak ikusita, 65 urtetik gorakoek partaidetza handia dute zorizko jokoetan, batez ere aurrez aurreko eta maiztasun txikiko modalitateetan. Aldi berean, joko problematikoaren maila baxuak erregistratu dira haien artean, beste adin talde batzuekin konparatuta. Partaidetza handiaren eta arazo gutxien konbinazioak sustatu du adinekoen joko ohiturek arreta mugatua jaso izana bai ikerketan, bai prebentzio estrategietan, gazteen artean eta onlineko joko modalitateetan jarri ohi baita arreta.

Hala ere, egungo testuinguru soziodemografikoak erronka berriak dakartzanez, adinekoen jokoaren azterketan sakondu behar da. Jokoa adinekoen egunerokoan duen zeregina alda dezakete biztanleriaren zahartze mailakatuak, erretiroari lotutako aldaketek, eguneroko denboraren berrantolaketak, alarguntzeak, nahi ez den bakardadeak edo gizarte sareak txikiagotzeak. Alde horretatik, jokoa askotariko funtzioak har ditzake —entretanimendua, ilusioa, sozializazioa, denbora egituratzea edota ohiturei eustea—, eta horrek ez du zertan esan nahi jokabide problematikoak sortuko direnik.

Aldi berean, gero eta errazagoa da hainbat joko modalitatetara iristea, joko tradizionalak eta eskaintza berriak daude batera, eta gizarte zein ekonomia desparekotasunak daude oraindik zahartzaroan. Horiek horrela, kolektibo horren joko ohiturak xehetasun gehiagorekin azter daitezke, eta babes elementuak zein zaurgarritasun faktore posibleak identifikatu. Jarduera horiek modu egokian ulertzea ezinbestekoa da estigma dakarten ikuspegiak saihesteko eta, aldi berean, inor ohartu gabe gerta daitezkeen arrisku egoerei aurrea hartzeko, jokoa kontrolpean dagoela eta gizartean onartzen dela badirudi ere.

Esparru horretan, Jokoaren Euskal Behatokiak azterlan hau sustatu du Euskadin 65 urtetik gorakoek dituzten joko ohiturei buruzko ezagutza espezifikoak sortzeko helburuarekin. Ikuspegi metodologiko misto bat erabiliko da, batetik azterketa kuantitatiboa eta bestetik eztabaida taldeetan oinarritutako hurbilpen kualitatiboa konbinatzen dituen. Hala, azterlanaren xedea fenomenoaren osotasuneko ikuspegia eskaintzea da, jokoaren hedapena, ezaugarriak, esanahiak, motibazioak eta lotuta dauden esperientziak kontuan hartuta. Lortzen diren emaitzak oinarri bihurtzea nahi da, adinekoen errealtateetara eta premietara egokitzen diren politika publikoak, prebentzio estrategiak eta sentsibilizazio ekintzak diseinatzeko.



2.

**Ikuspegi orokorra:
jokoa eta 65 urtetik
gorakoak Euskadin**




Ikuspegi orokorra: jokoa eta 65 urtetik gorakoak Euskadin

2.1. Jokoaren prebalentzia eta ohiturak

65 urtetik gorakoek jokoari lotuta duten errealitatera hurbiltze aldera, lehen aldagaia zorizko jokoetan duten partaidetza da. Datuei jarraituz, adineko gehienek aitortzen dute zorizko jokoetan ibili direla azken 12 hilabeteetan. Zehatz-mehatz, **inkesta egin zitzaienen % 87,1ek (n = 625) aldi horretan jokatu dutela adierazi dute**. Aitzitik, % 12,9k diote ez direla jokoetan ibili. Datu hori ikusita, adineko biztanleen partaidetza handia da zorizko jokoetan, beste adin talde batzuetan ikusitakoa baino askoz handiagoa. Halaber, jarduera horiek bizi zikloaren etapa horretan zeinen normalizatuta dauden berresten da.

1. grafikoa. Azken urtean jokoetan ibili izana aitortzen duten 65 urtetik gorako biztanleak (%)




Iturria: geuk egina. Jokoari eta 65 urtetik gorakoei buruzko inkesta, Euskadi, 2025.

Jokoaren modalitatea adinekoen jokatzeko moduaren ezaugarri bereizgarrienetako bat da. Emaitzetan ikusten den bezala, jokoa ohiko eta aurrez aurreko modalitateetan kontzentratzen da nabariki. Gehien ibiltzen den jokoa loteria berezia da; ondoren loteria primitiboa eta astean behingo beste zozketa batzuk daude, bai eta ONCEren kupoiak ere. Beste modalitate batzuen presentzia —joko makinak, bingoa, kirol apustuak...— oso txikia da argi eta garbi. Onlineko jokoak eta kasinoko jokoak, ordea, ez dira ia agertzen hizpide dugun kolektiboaren ohituretan.



Ikuspegi orokorra: jokoa eta 65 urtetik gorakoak Euskadin

2. grafikoa. 65 urtetik gorakoen joko lehentasunak (%)



Iturria: geuk egina. Jokoa eta 65 urtetik gorakoei buruzko inkesta, Euskadi, 2025.

Ohiko eta aurrez aurreko jokoa hobesteko joera hori eztabaida taldeetan bildutako diskurtsoetan berretsi da. Horietan, adinekoek «betiko» jokatzen identifikatzen dituzte, ohiturari, konfiantzari eta ilusioari lotuak. Modu esplizituan bereizten dituzte arriskutsuagotzat edo haien ohituretatik urrunekotzat jotzen dituzten beste joko forma batzuetatik.

Eta Eguberrietako loteria ere hartzen dut. Eta Errege egunekoa. (Gasteizko ET)

Ni itsuen loterian eta nazionalean ibiltzen naiz, ostiralean eta larunbatean. (Donostiako ET)


Eta loterian jokatzen dut talde batekin; bonolotoa eta euromilioia. Eta noizean behin itsuena hartzen dut. (Bilboko ET)

Joko maiztasunari dagokionez, datuek adierazten dute partaidetzaren intentsitatea baxua edo neurrizkoa dela. Jokatzen duten adineko gehienak maiztasun txikiarekin aritzen dira: % 58,7k diote hilean behin edo gutxiago jokatzen dutela, eta % 32,8k, berriz, hilean bi eta lau egun artean. Maiztasun handiagoak ez dira batere ohikoak, gutxik jokatzen dute eta astean zenbait aldiz edo egunero. Patroi horrek berresten du ezen, nahiz eta jokoa oso hedatuta egon, noizean behin eta kontrolpean egiten dela gehienbat.



Ikuspegi orokorra: jokoa eta 65 urtetik gorakoak Euskadin

3. grafikoa. 65 urtetik gorakoen joko maiztasuna (%)



Iturria: geuk egina. Jokoari eta 65 urtetik gorakoei buruzko inkesta, Euskadi, 2025.

Jokoari lotutako gastu ekonomikoa dela eta, emaitzek berretsi dute adinekoek jokatzen dituzten zenbatekoak neurrizkoak direla oro har. Inkestaren aurreko astean, jokatutako batez besteko zenbatekoa 7,78 euro izan zen, eta mediana, 5 euro. Azken hilabetea, berriz, batezbestekoa 34,88 euro izan zen, eta medianak 20 euroan jarraitzen du. Diskurtsoetan ere egiaztatu da hori:

Hilean oso gutxi jokatzen dut, 20 euro edo 10 euro guztira. (Gasteizko ET)

Edo, Bilboko emakume batek dioen bezala, jokoa gastatzen duena aste batetik bestera aldatzen da, prezioa bera aldatzen delako:

6 euro balio dute, eta berezi bat dago, 12 edo 15 euroko berezi bat. Hilan batean edo asteren batean dezimo bereziak egoten dira. (Bilboko ET)

Prebalentzia handieneko jokoa begira, azken Eguberrietan batez besteko gastu aitortua 134,38 euro izan zen, eta mediana, 100 euro. Nahiz eta dispertsio handia ikusten den —1.000 eurorainoko tarte batekin—, erdiko balioek adierazten dute gastuaren gehiengoa nahiko zenbateko neurritsuetan kontzentratzen dela eta urteko une jakin bati lotzen zaiola: loteriaren erosketak da, oro har. Partaideek hau diote:

Astean 28 euro jokatzen ditut. Eta Eguberrietan? Ba ez dakit, Eguberrietan jokoren batean ibiltzen naiz, hamar edo hoge dezimo inguru. (Gasteizko ET)

Zenbaitetan, zozketan parte hartzen dutenek gehiegizkotzat jotzen dute gastu hori:

Urtero esaten dut hurrengo urtean ez dudala berriz jokatuko, eta iristen denean fruta dendara noa eta zenbakia hor dago, erakusmahai egun osoa, nola ez dut ba hartuko? Fruta dendan tokatu da, eta egunero zaude hor. Gero harategian, hori gezurretan aritzea da, e. Gehi gero beste dena beste nonbait, aizu, erosi al duzu aldatzeko? Bai, hemen daukat jada zuretzat, ile apaintzaileak. (Bilboko ET)



Ikuspegi orokorra: jokoa eta 65 urtetik gorakoak Euskadin

Neurrizko joko ohitura hori aitortu diren motibazioetan ere islatu da. Jokatzeko arrazoi nagusia galdetzen denean, gehien hautatzen den aukera «dirua irabaztea» da, galderari erantzuten dioten % 66,2k hori adierazi baitute. Nolanahi ere, azterketa kualitatiboak emaitza zehazteko aukera ematen du: diskurtsoetan, irabazi ekonomiko zozketaren ilusioari lotuta agertzen da gehienbat, ez hainbeste onura ekonomiko handiak lortzeko benetako itxaropenari. Arrazoi horrekin batera, tradizioak (% 22) eta entretenimenduak (% 8,2) ere leku garrantzitsua dute, jokoak funtzio sinbolikoa eta ohikoa duela indartzeraino, eta ez horrenbeste tresna funtzio bat.

Eguberrietan, 200 edo 300 euro jokatzeko konpromisoa. (Gasteizko ET)

Niri kupoiak gustatzen zaizkit, batez ere loteria, esan dudana, baina kupoiarena bai...
Itsuei hainbeste laguntzen dien elkarte horri nire harri koskorra ematen diodala iruditzen zait. (Bilboko ET)

2.2. Joko problematikoa

Zorizko jokoei heltzen zaienean, adikzioak garrantzi handia hartzen duten gaietako bat dira. Kasu honetan, 4. grafikoan jasotako emaitzak lortzeko, DSM-V eskala erabili dugu¹. Eskala horrek honela deskribatzen du joko patologikoa: «jokoaren portaera iraunkorrek, egokitzapena eragotzi eta klinikoki ondoez handia sortzen duena». Eskala horrek aitorten handia du nazioartean, eta horrelako azterlanetan erabiltzen da Ikuspegi hori aintzat hartuta eta 9 irizpideren bitartez, eskala bat ezartzen da. Eskalako 1etik 3rako puntuazioa (irizpideen baieztoko erantzunena) joko problematikoa izango litzake, eta gehiegizko joko jokaera eta jardura horretatik eratorritako arazoren bat islatuko luke, inpaktu oso adierazgarri izan gabe. Kategoria honetan, hainbat sintoma egon daitezke: baliteke familiako arazoak izatea edo jokoaren atal batean denbora edo diru gehiegi inbertitu izanagatik errudun sentitzea, etab. 4ko puntuazioa edo handiagoa izanez gero, jokoaren nahasmendua izango litzateke jada, eta hiru mailatan bereizi daiteke puntuazioaren arabera: jokoaren nahasmendu arina (4 eta 5 irizpideren artean), neurritsua (6 eta 7ren artean) edo larria (8 edo 9).


Ikerlan honetan, gaia jorratzen da azken urtebetean jokatu duten 65 urtetik gorako biztanleen artean jarritz arreta. Lehenik azpimarratu behar da joko patologikoko egoeraren batean daudenak (arina, neurritzkoa edo larria) jokoan dihardutenen % 0,4 direla —edo adin horretako biztanleriaren % 0,3—. Horri gehitu dakioke joko problematikoko posiblearen fasean daudenak, hots, % 0,8. Ostera, ez dago inor joko nahasmendu larrienaren kategorietan (neurritzkoa edo larria). Laburbilduz, gorago adierazi den bezala, azterlanaren emaitzek berresten dute jokatzeko eta apustu egiten dutenek olgetaz eta modu ez-patologikoan jarduten dutela (% 98,8).

¹ The American Psychiatric Association (APA). Diagnostic and Statistical manual of Mental Disorders (5th edition). Washington DC, 2013.



Ikuspegi orokorra: jokoa eta 65 urtetik gorakoak Euskadin

4. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan jokoari lotutako arazoren bat izan duen 65 urtetik gorako biztanleria, DSM-Ven arabera (%)



Iturria: geuk egina. Jokoari eta 65 urtetik gorakoei buruzko inkesta, Euskadi, 2025.

Biztanleriaren zenbatespena eginez gero, alegia, datu horiek Euskadin bizi diren 65 urtetik gorako guztiei aplikatuz gero², 4.000 pertsonarena baino gehiagorena izan liteke joko problematikoa edo arrisku jokabidea 2025ean. Bestalde, 2.000 pertsona baino pixka bat gehiago egongo lirateke joko patologiko arinean.

Aurreko datua osatzeko, atzera begirako galdera bat ere bazegoen azterlanean. Hala, laginaren % 2,4k adierazi dute gehiegi jokatzeko arazoak edo mendekotasuna izan dituztela.

Bestalde, jokoaren ondoriozko kalteei dagokienez, inkestatutako biztanleriaren % 7,5ek ezagutzen dute zorizko jokoei eta apustuei arazoak izan dituen familiako norbait. Datu hori bera ingurune sozialik hurbilenari aplikatuz gero, % 14,7ra igotzen da.

² Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 2025eko apirilaren 1ean 65 urteko edo hortik gorako 544.859 pertsona bizi ziren Euskadin.



3.

**Kolektiboen
errealitatea**



Kolektiboen errealitatea

Aurreko puntuan, Euskadin jokatu eta apustu egiten duten 65 urtetik gorako biztanleen jokabideari lotutako emaitza nagusiak aurkeztu dira. Alabaina, kolektibo hori osorik ez da izaki homogeen bat, eta desberdintasunak daude, gizartearen gai gehienetan gertatzen den bezalaxe. Horregatik, emaitza nabarienetako batzuk aztertuko dira atal honetan, aldagai soziodemografiko giltzarriak erreparatuta; adibidez, sexua, adina eta bizikidetzaren mota. Helburua jokoaren jardueran patroi bereizgarri posibleak identifikatzea da.

3.1. Jokoaren prebalentzia eta ohiturak

Sexua dela eta, ez dira alde estatistikoki adierazgarriak ikusi zorizko jokoen azken 12 hilabeteetan izandako **partaidetza**. Gizonen % 85,7k eta emakumeen % 88,1ek adierazi dute aldi horretan jokatu dutela, eta horrek bereizten du jokoa bi sexuek zabalki partekatzen duten jardueraren bat dela adinekoen artean.

Alderik ez egoteak azterketa kualitatiboan ikusitakoa indartzen du. Horren arabera, gizonak eta emakumeak homogeen samarrak dira joko mota, maiztasuna, gastua eta jokoa esleitzen zaion esanahia aintzakotzat hartuta. Beste biztanle talde batzuetan ez bezala, genero desparekotasunek ez dute jokoa hainbeste zeharkatzen zahartzaroan, eta belaunaldien patroi komunei lotuta dago neurri handiagoan, zeinetan tradizioak, gizartearen normalizazioak eta autokontrolak garrantzia dute.

Ostera, alde nabariak identifikatu dira jokoen partaidetza **zahartzaroaren etapak** kontuan hartuta aztertu denean. Zahartzaro gazte deritzon etapan (65-74 urte), inkesta egin zaien % 90,5ek zorizko jokoen jardun dute azken 12 hilabeteetan. Ehuneko zertxobait txikiagoa da tarteko zahartzaroan (75-84 urte), % 87,5, eta are gehiago jaisten da zahartzaro aurreratuan (85 urtetik gora), % 75,2raino.

Adinaren araberako gradiente horrek iradokitzen du jokoa egon badagoela etapa guztietan, baina behera egiten duela mailaz maila, gehiago zahartu ahala. Gutxiagotze hori osasunean, mugikortasunean, autonomia pertsonalean edo eguneroko ohituretan gertatzen diren aldaketek lotuta egon daitezke. Hain zuzen, faktore horiek kontakizun kualitatiboetan agertzen dira, etxetik kanpoko aisia jardueretan parte hartzea baldintzatzen duten elementu gisa.

Bizikidetzaren motak ere alde adierazgarriak dakartza jokoen partaidetza. Etxean norbaitekin bizi diren adinekoek partaidetza maila txikiagoa dute: % 90,1ek jokatu dute azken 12 hilabeteetan. Ehuneko hori txikiagoa da bakarrik bizi direnen artean (% 85,2), eta nabariki jaisten da erakundeetan bizi direnen artean edo laguntza formala dutenen artean: % 54,5ek soilik adierazi dute jokatu izana.

Emaitza horiek indartzen dute jokoa eguneroko partekatuari eta harreman sare aktiboaren existentziari lotuta dagoelako ideia, adinekoei dagokienez. Norbaitekin bizitzeak



Kolektiboen errealitatea

ohiko jarduerak egiten jarraitzea errazten du; esate baterako, loteria erostea, elkarrekin jokatzeko edota aisiari lotutako gizarte ohituretan parte hartzea. Aitzitik, antza denez, erakunde batean bizitzeak edo laguntza formalen mende egoteak jokoa eskuratzea eta jokatzeko bera mugatzen du, arauen ondoriozko mugak egoteagatik, autonomia txikiagoa izateagatik edo gizarte dinamikak aldatu izanagatik.

Maiztasunaren harira, alde nabariak ikusi dira gizonen eta emakumeen artean. Joko patroia noizean behingoa da emakumeen artean batik bat: % 66,2k diote hilean behin edo gutxiago jokatzen dutela, eta gizonen artean % 48,9 dira. Gizonak, ordea, joko patroia intentsiboagoak dituzte maizago, bereziki hilean bi eta lau egun arteko kategorian (gizonak, % 39,3; emakumeak, % 27,9) eta asteko maiztasunetan.

Joko maiztasunean alde nabariak daude, halaber, zahartzaroaren etapa kontuan hartuta. *Zahartzaro gaztean*, maiztasun ertainen eta handien presentzia handiagoa da: hamar pertsonatik ia lauk bi eta lau egun artean jokatzen dute hilean, eta ehuneko txiki batek astero jokatzen du. Adinean aurrera egin ahala, joko patroia argi eta garbi aldatu eta jarduera noizik behingo bihurtzen da.

Zahartzaro aurreratuan, inkesta egin zitzaizkion % 72,9k adierazi zuten hilean egun bakarrean edo gutxiagoan jokatzen duela, eta maiztasun intentsiboak desagertzen dira. Eraitza horrek indartzen du zahartzeak ez duela zertan jokoa arbuizatzea ekarri. Aldiz, maiztasuna mailaz maila murrizten da, osasunean, mugikortasunean, autonomiak eta gizarte ohituretan gertatutako aldaketek lotuta.

Gastua dela eta, gizonen batez besteko gastua emakumeena baino handiagoa da, epe labur eta ertainera. Azken astean, gizonak diote 8,8 euro gastatu dutela, batez beste, eta emakumeek, aldiz, 6,7 euro. Aldea handiagotzen da azken hilabeteko gastua aztertzen denean: gizonen batezbestekoa 40,5 euro da, eta emakumeena, 28,8 euro.

Gastua ere behera doa adinak aurrera egin ahala. *Zahartzaro gaztean* daudenak batezbesteko handienak dituzte, bai azken astean (8,5 euro), bai azken hilabetearen (39,4 euro). *Tarteko zahartzaroan* eta, bereziki, *zahartzaro aurreratuan*, batez besteko gastua argi eta garbi murrizten da: talde zaharrenean, 6,5 euro inguru dira astean, eta 25 euro hilabetearen.

Bizikidetzaren mota aintzakotzat hartuta, gastuari dagozkion aldeetan nabardurak daude. Bakarrik bizi diren hileko batez besteko gastua (38,3 euro) norbaitekin bizi direnena (33,7 euro) baino pixka bat handiagoa da. Bi taldeetan, desbideratze estandar handiak adierazten du norbanakoen egoerak askotarikoak direla oso.

Erakundeetan bizi direnek edo laguntza formala dutenek gasturik txikiena dute, bai astekoa, bai hilekoa. Nahiz eta laginaren tamaina txikia den, eraitza horrek adieraz dezake gastua kanpotik kontrolatzen dela neurri handiagokoan eta jokatzeko aukera gutxiago dardela.



Kolektiboen errealitatea

3.2. Joko problematikoa

Joko kategoriak aztertzen direnean ikusten da ia adineko guztiak nahasmendurik gabeko mailetan daudela, sexua, adina edo bizikidetza mota alde batera utzita. Oro har, aurreko puntuan ikusi den moduan, partaideen % 98,8k ez dute joko problematikoaren adierazlerik eta, beraz, arriskua dakarren jokoaren edo joko patologiko arinaren kasuak oso gutxi dira.

Sexua kontuan izanik, estatistikoki oso adierazgarriak diren aldeak ikusi dira, nahiz eta garrantzi praktikoa oso mugatua den kasu kopurua txikia delako. Gizonen artean, ia guztiak daude joko nahasmendurik ez dagoen kategorian, eta joko patologiko arinaren bi kasu besterik ez da erregistratu (% 0,7). Emakumeen artean, joko problematikoaren edo arriskua dagoen bost kasu agertu dira (% 1,4), eta joko patologiko arinaren kasurik ez.

Adinaren etapei erreparatuta, ez da ikusi estatistikoki esanguratsua den alderik. Joko problematikoaren edo patologikoaren presentzia zahartzaro gaztean eta bitarteko zahartzaroan soilik kontzentratu da, eta % 1etik beherakoa da beti. Zahartzaro aurreratuan ez da kasurik detektatu, ez joko problematikoarenak, ez joko patologikoarenak.

Patroi horrek indartzen duen ideia zera da, adinean aurrera egin ahala, jokoaren formak noizik behingoagoak eta kontrolatuagoak direla, arrisku dinamiketarik urrun.

Bizikidetza motaren arabera aztertuta ere ez da alde handirik ikusi. Hala bakarrik nola norbaitekin bizi direnen artean, joko nahasmendurik ez dutenen proportzioa % 98tik gorakoa da aise. Joko problematikoaren edo joko patologiko arinaren kasu bakanak bakarrik edo norbaitekin bizi direnen artean kontzentratzen dira, eta ez da kasurik detektatu erakundeetan bizi direnen edo laguntza formala dutenen artean.

Emaitza hori bat dator azken talde horretan ikusi diren maiztasun eta gastu txikiagoekin, bai eta ohituren eta diruaren erabileraren kanpoko kontrol handiagoarekin ere.



4.

**Jokoaren sozializazioa
adinekoen artean:
testuingurua, hasiera
eta ibilbideak**



Jokoaren sozializazioa adinekoen artean

Atal honetan aztertzen da partaideek zorizko jokoekin izandako lehen kontaktua, joko motak eta une horretan norekin zeuden. Hala, emaitza kuantitatiboak eta kualitatiboak bateratuko dira. Era berean, bizitzan zehar jokatzeko moduan zer aldaketa hauteman diren esploratzen da. Azterketaren esparrua belaunaldi horien hasierako sozializazioa gertatu zen testuinguru historiko eta soziala da, oso elementu garrantzitsua baita egungo jarduerak ulertzeko.

2025ean, azterlaneko partaide guztiek 65 urte edo gehiago zituzten. Horrek esan nahi du haien haurtzaro, nerabezaro eta gaztaro osoa edo zati bat erregimen frankistaren pean gertatu zela. Testuinguru hori ezinbestekoa da ulertzeko zer aisia forma zeuden eskura, zein ziren jokoari buruzko diskurtso moralak eta zer joko modalitate zehatz eskuratu ahal izan zituzten zorizko jokoekin kontaktua izandako lehen uneetan.

Diktadura frankistan zehar, jokoa oso araututa zegoen eta moral kontserbadoreak zeharkatzen zuen; horren arabera, jarduera jakin batzuek gizarte zigorra jaso zezaketen. Esparru horretan, baimenduta zeuden zorizko jokoek —batik bat loteria nazionala, kinielak eta ONCEren kupoia— gizarte legitimitatearen estatusa hartu zuten. Aldi berean, jarduera kolektibo eta normalizatu gisa aurkezten ziren, eta, zenbaitetan, xede sozialei edo Estatuaren sostenguari lotuta. Legitimatze prozesua lagungarria izan zen jokoa eguneroko jarduera onargarri gisa normalizatzeke.

4.1. Jokoa hastea: adina, testuingurua eta lehen jarduerak

Ikuspegi kuantitatibotik, zorizko jokoetan hasteko batez besteko adina 52,53 urte dira. Hala ere, hasi zireneko adina gogoratzen ez dutenen edo zehazteko gauza ez direnen ehuneko handiak (% 34,6) balio hori nabarmen baldintzatzen du. Une hori gogoratzen dutenei soilik erreparaturik, haien multzo handi samar bat gaztaroan edo helduaroaren lehen urteetan hasi zen. Laurden baten hasiera 18 eta 25 urte artean izan zen, eta erdia baino gehiago 35 urte bete aurretik hasi zen.

Patroi hori argi islatzen da diskurtso kualitatiboetan. Partaide gehienek diote gizartean eta familian normala zen testuinguru batean hasi zirela jokoa, eta bikotea osatzeari edo helduaroa hasteari lotuta zegoen maiz. Zenbait emakumek honela azaldu dute:

Bai, bai, ba 20 urterekin-edo. Gero ja, senarrarekin; ezkondu nintzen eta ja senarrarekin.
(Bilboko ET)

Esan dezaket ezkongai ginela hasi nintzela, senarrarekin, hau da, senargaiarekin.
(Bilboko ET)

Era horretan, jokoaren hasiera bizi etapari dagozkion ohituren barruan kokatzen da, arrisku edo hauste konnotaziorik gabe. Kasu askotan, jarduera partekatu baten gisara txertatu zen, bikote bizitzarekin edo hurbileko gizarte harremanekin batera.



Jokoaren sozializazioa adinekoen artean

Jokoaren hasierak izandako harreman izaera aurreko belaunaldietan ere ikusten da, esposizio goiztiarra familia dinamikari lotuta agertzen da eta. Jokoa ibiltzen ziren edo jokoa aipatzen zen etxeetan, jokoa eguneroko paisaiaren barruan zegoen, nahiz eta beti ez egon gazteenen zuzeneko jardueraren barruan:

Amak asko jokatzen zuen, eta ez pentsa etxean diru asko zegoenik, bost anai-arreba ginen eta. Baina amak jokatu egiten zuen, etxean bazen ere. (Bilboko ET)

Baina gazteek ez genuen jokatzen, gurasoek baizik. (Donostiako ET)

Modu horretan, jokoa hasi ziren jarduera hori bazegoen ingurune batean, eta legitimitatea zuen olgetarako, eguneroko eta gizartean onartutako jarduera gisa.

4.2. Lehen jokoak: tradizioa eta eskaintza mugatua

Datu kuantitatiboek berresten dute zorizko jokoekin izandako lehen kontaktua modalitate tradizionalen bitartez gertatu zela gehienetan. Partaideen erdiak baino gehiagok loteria nazionala aipatzen dute lehen joko gisa, batez ere zozketa bereziak: Eguberrietakoa edo Errege egunekoa (% 35,9). Atzetik datozkie asteroko loteria nazionala (% 10,3) eta kiniela (% 13,5). ONCEn kupoia ere garrantzia duen modalitate bat da (% 3).

Patroi horren azalpena sozializazio testuinguru historikoa da. Belaunaldi horien haurtzaroko eta gaztaroko hamarkadetan, zorizko jokoen eskaintza oso mugatua zen eta modalitate horietan kontzentratzen zen, oso errotuta baitzeuden herri kulturaren. Halaxe diote eztabaida taldeetako partaideek ere:

Nik uste kinuekin hasi ginela denok jokoa. Ni 57an jaio nintzen eta kinielak 46an hasi ziren. Kontua da ez zegoela beste jokorik, ez zegoen. (Donostiako ET)

Gaia ez da gehiago jokatzen genuenik, baizik eta garai horretan ez zegoela orain bezainbesteko joko. Orduan, kinielak eta itsuena besterik ez genuen, ez zegoen beste ezer. (Donostiako ET)

Jokoa hasteko espazioak ere egunerokoak eta hurbilekoak ziren; esate baterako, lantokia, auzoa edo taberna. Zenbaitetan, partaidetza modu kolektiboan antolatzen zen:

Lantokian ere zenbaki bat genuen urte osoan ordainduta, nik urte osoan jokatzen ez nuen. Batzuek bai, baina nik Eguberrietan eta Errege egunean jokatzen nuen beti. (Bilboko ET)

Aitak beheko tabernan jokatzen zuen, lagunarte moduko bat zen. (Bilboko ET)

Kontakizun batzuetan, hasieran sari txiki bat lortu izana jarraitutasuna sustatzeko errefortzu sinboliko gisa agertzen da:

Eguberrietan hasi nintzen, dirua tokatu zitzaidan, berriz jokatu nuen, baina ez zitzaidan berriz ere tokatu. (Bilboko ET)

Jokoaren sozializazioa adinekoen artean

Hasierako motibazioetan jakingura, ilusioa eta ekonomia hobetzeko itzaropena konbinatzen dira, bereziki bizi proiektuei lotuta (etxebizitza erostea kasurako):


Gaztetan hasten zara gogoia duzulako, dirua irabazi nahi duzulako, zorte ona baldin baduzu. Aurrena senargaiarekin hasten zara, ea pisua erosterik duzun. Ez duzu ezer erosten, gastatzen ari zara. Baina ilusioa zen, zerbait tokatuko ote zitzaigun. (Bilboko ET)

Gauza bera pentsatzen genuen, ea zorte ona dudana eta pisuaren sarrerarako tokatzen zaidan. (Donostiako ET)

4.3. Konpainia eta jokoaren alderdi erlazionala

Jokoaren alderdi soziala argi agertzen da nola datu kuantitatiboetan hala diskurtsoetan. Jokoa izandako lehen kontaktuan, partaideen % 22,7k adierazi dute bakarrik zeudela. Gainerakoak lagunekin (% 20,4), familiakoekin (% 14,7) edo bikotekidearekin (% 8,4) zeuden. Patroi horrek indartzen du jokoa jarduera partekatua zela, gizarte eta familia bizitzaren barruan zegoena.

5. grafikoa. Konpainia, 65 urtetik gorakoak jokoa hasi zirenean (%).



Iturria: geuk egina. Jokoa eta 65 urtetik gorakoei buruzko inkesta, Euskadi, 2025.

Kontakizun kolektiboak erakusten du jokoa komunitateko eta etxeke sozializazioaren parte zela, bereziki aisia aukerak mugatuak ziren testuinguruetan. Zenbait partaidek honela diote:

Etxean txikitatik ikusten duzuna. Etxean kiniela egiten zen beti, baina baita lanean eta lagunartean ere. Tradizioak agintzen zuen Eguberrietan erosi eta guztiekin partekatua behar zela. (Donostiako ET)

ONCEren kupoia, ONCE betidanik. Etxean hori ikusi dut beti, loteria baino neurri handiagoan. (Donostiako ET)



Jokoaren sozializazioa adinekoen artean

Belaunaldien arteko transmisio hori ez da behatzera mugatzen, zenbaitetan ikaskuntza ludikoaren formak ere bazituen:

Behin batean, Erregeek loto bat ekarri zidaten, bolatxoa, biradera eta guzti, etxean jokatzeko. (Donostiako ET)

Hala, jokoa familiaren topagune gisa agertzen da, emakumeen artean bereziki, amarekin bingora joaten zela gogoan duen partaide baten lekukotasunak erakusten duen bezala:

Ama Bilbora etortzen zen eta gauean esaten zidan: goazen bingora pixka bat. Bera ez da sekula bakarrik joan. Autoa hartu eta Errekalde zumarkalera joaten ginen tartetxo bat. Ez ziguten begiratzeko zerbait txarra egiten ariko bagina bezala. (Bilboko ET)

Gaur egun, adinekoek aitortzen dute nolako zeregina duten belaunaldi gazteagoen sozializazio eragile gisa, eta hausnarketa kritikoa egiten dute transmititzen duten ereduari buruz. Aldi berean, normalizazio hori zalantzan jartzen duten diskurtsoak sortzen dira:

Bilobekin banago eta kioskotik pasatzen banaiz loteria eroatera, bilobek ikusten dute. Horrela sustatu egiten dugu. Diru hori galdua dela esango banie, beste modu batean ulertuko lukete. (Gasteizko ET)

Baina esan behar diegu, baita ere, neska-mutilei, gazteei edo bilobei etxean. Ba hori ez (potoei buruz), ez ditugu loterian jokatzeko. Beste afari baterako uzten ditugu... (Gasteizko ET)



5.

Ondorioak



Ondorioak

Ikerteta honen emaitzek erakutsi dute zorizko jokoak jarduera hedatu samarra eta gizartean normalizatua dela Euskadiko 65 urtetik gorakoen artean. Azken 12 hilabeteotan erregistratu den partaidetza handiak berresten du jokoa kolektibo horren ohiko ohituren barruan dagoela, erroturiko kultur tradizio partekatu batean finkatuta daudela, eta ez hainbeste arriskuari begirako edo onura ekonomikoak sistematikoki lortzeari begirako jokabide batean.

Adinekoek jokatzeko moduan, ohiko eta aurrez aurreko modalitatean hobesten dira argiro; adibidez, loteria nazionala, zozketa bereziak, primitiboa edo ONCEn kupoia. Jarduera horiek «betiko jokoak» direla ulertzen da, ohiturari, konfiantzari eta ilusio partekatuari lotuak, eta argi eta garbi bereizten dira beste modalitate batzuetatik: onlineko jokoak, kirol apustuak... Urrunekoak direla eta arriskutsuak izan daitezkeela hautematen da. Zedarriztapen sinboliko horrek joko seguru eta kontrolatuaren autoirudia indartzen du, eta hori oso lotuta dago belaunaldiaren sozializazioari.

Maiztasunari eta gastuari erreparatuta, jokoa noizean behingo zerbait da gehienetan, eta ekonomikoki neurrizko moduan gauzatzen da. Nahiz eta partaidetza handia izan, adineko gehienek intentsitate txikiarekin jokatzen dute eta muga onargarrien barruan eusten diote gastuari. Gastua noizean behin igotzen da (Eguberrietan batik bat) ezohiko logika erritual bati erantzunez, tradizioari, konpromiso sozialari eta truke erlazionalei lotuta, ez hainbeste jokoaren mailaz mailako areagotzeari. Diskurtso kualitatiboetan agerian geratzen da muga eta autokontrolaren kontzientzia argia.

Jokatzeko motibazioen artean, dirua irabazteko ilusioa eta elementu sinboliko eta erlazionalak konbinatzen dira; esate baterako, tradizioa, entretenimendua eta ekimen sozialak babestea. Nahiz eta «dirua irabaztea» datu kuantitatiboetan gehien aipatzen den arrazoiak izan, interpretazio hori azterketa kualitatiboarekin zehaztu daiteke: itxaropen ekonomikoa zozketaren emozioari eta ilusio partekatuari lotzen zaio nagusiki, ez horrenbeste onura ekonomiko jarraitu baten itxaropen errealistari.

Joko problematikoaren harira, emaitzek aditzera ematen dute joan aritzen diren ia adineko batek ere ez duela joko nahasmenduaren adierazlerik, eta detektatu diren kasuak estadio arin edo arrisku posibleen estadioetan soilik metatzen dira. Ez da identifikatu joko patologiko neurritsuaren edo larriaren egoerarik adin talde honetan. Hala ere, prebalentzia txiki samar horrek ez gaitu irakurketa atsegin batera eraman behar: termino absolutuetan, joko problematikoak edo arriskua dakarren jokoak Euskadiko milaka adinekori eragiten die. Horrenbestez, jarraipenerako, detekzio goiztiarrerako eta akonpainamendurako estrategiak edukitzeko beharra indartzen da hartara, bereziki zaurgarritasun sozialeko testuinguruetan.

Azpitaldeak aztertzean agerian geratu da jokoa ez dela homogeneoa zahartzaroan, baina barruko aldeak neurritsuak dira, oro har. Ez da sexuaren araberako arrakala handirik ikusi jokoaren prebalentzian, ezta joko problematikoaren presentzian ere. Beraz, ematen du genero desparekotasunek gero eta neurri txikiagoan zeharkatzen dutela



Ondorioak

jokoa zahartzaroan, eta belaunaldien patroikomunei lotuta dagoela hein handiagoan. Aitzitik, adinaren eta bizikidetza motaren araberrako gradienteark identifikatu dira. Zehazki, maiztasuna eta gastua jaisten dira mailaz maila, adinean aurrera egin ahala. Eta erakundeetan bizi direnen partaidetza txikiagoa dela ikusirik, badirudi osasunak, autonomiak eta sare erlazionalek eragina dutela jokoa.

Azkenik, azterlanean ageri da adinekoek zorizko jokoein duten harremana bizitzan zehar eraikitzen dela, aisialdiko aukera gutxi, ohiko jokoen legitimitatea gizartean eta alderdi erlazonal esanguratsua nabarmenak ziren testuinguru historiko batean. Bizi ibilbide horretan, argi bereizten dira zahartzaroko eta belaunaldi gazteen arteko jokoa, eta azpimarratzen da adina kontuan hartzen duten prebentzioari begirako politika publikoak eta estrategiak behar direla, erdigunean pertsonak dituztenak, baina baita joko modalitateak ere.

Oro har, Euskadiko adinekoen artean, zorizko jokoa kultura-, gizarte- eta belaunaldi-testuinguru jakin bati lotutako fenomeno da. Estigmatizaziorik gabeko prebentzio lana behar da, halaber, oinarri hauekin: joko segurua sustatzea, arrisku egoerak goiz identifikatzea, eta zahartzaroko bizitza sozialari, autonomiari eta ongizateari lotutako babes faktoreak indartzea.



6.

Fitxa teknikoa



Fitxa teknikoa

Zer egin den: azterlan hau (jokoa eta 65 urtetik gorakoak Euskadin, 2025) EHUko Soziologia eta Gizarte lana Sailak egin du. Kide hauek parte hartu dute: Iraide Fernández Aragón irakaslea eta Aidée Baranda Ortiz ikertzailea, Irune Ruiz Ciarreta eta Oier Ochoa de Aspuru irakasleen laguntzarekin. Landa lana bi alditan egin zen.

Lehenik, zati kualitatiboan hiru *focus group* egin ziren maiatzetik ekainera, bat lurralde historikoetako hiriburuetako bakoitzean.

- Lehenengoa Bilbon egin zen. Guztira zortzi emakumek parte hartu zuten.
- Bigarren *focus groupa* Donostian izan zen. Partaideak zortzi gizon izan ziren.
- Eta hirugarren *focus groupa* Gasteizen egin zen. Lau gizonek eta lau emakumek parte hartu zuten.

Talde guztietan, zorizko jokoetan eta apustuetan ibiltzen direnen diskurtsoa bilatzen zen, zorizko jokoekin duten harremanari eta horien pertzepzioari buruzko informazioa lortzeko.

Talde bakoitza moderatu zuten profesionalek dinamika irekia eta erdi-gidatua bideratu zuten. Eztabaida taldeen saio guztiak hasi aurretik, partaideek baimena emateko dokumentu bat sinatu zuten. Horrez gain, eztabaida taldeen saio guztiak audio formatuan grabatu ziren. Hortaz, talde bakoitzaren hitzez hitzeko aipuak atera ahal izan dira, eta, gero, txostena egiteko aztertu ahal izan dira.

Bigarrenik, datu kuantitatiboak direla eta, 2025eko irailetik urrira bitarte lortu ziren.

Unibertsoa: EAEn bizi diren 65 urtetik gorakoak.

Laginaren tamaina: 750 inkesta, 250 lurralde historiko bakoitzean.

Inkestariak egin zituzten inkesta pertsonalak.

Laginaren diseinua: laginketa geruzatua (esleipen sinplea) kuotekin, habitataren tamaina, ikasketa maila, adina eta sexua kontuan hartuta. 12 laginketa punturen hautaketa.

Haztapena lurralde historikoaren arabera:

Laginaren errorea: konfiantza maila % 95 eta $P = Q$ izanik, errorea $\pm 3,58$ da.